



Bilbatua (-a)

etxebizitza

Aldacrak: Bilbatuetxebarria
Ahozkoa: Bilbétu

“... la casería rústica titulada Bilbatua Echevarria... y su casa accesoria llamada Bilbatuaganecoa... situadas en la barriada de Andicon a jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprenden con sus zaguanes, horno, huerta y heredad contiguas quinientos setenta y nueve estados cuadrados superficiales de cabida, y se compone cada una de ellas de una vivienda, con piso bajo a manera de entresuelo y piso alto...”
DJE 2/32 or. (1866)



43° 10' 50"

2° 35' 41"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Ereñaga baserritik Andikoako elizara doan bidean aurkitzen ditugu *Bilbatua* baserriak (**Ikus Bilbatuaganekoa** eta **Bilbatuazpikoa**), eta tartean, honako hau: *Bilbatua* (1686, BAH, A859/30). XVII. mendetik aurrera aurkitzen ditugu baserri honen gaineko aipuak, nahiz eta XVIII. mendean gerotik *Bilbatua Echebarria* eta *Vilbatua Echebarria* (1704 eta 1796, Bizkaiko su-errodak) moduan agertzen den, bai Bizkaiko su-erroldetan eta baita garaiko beste dokumentuetan ere, esaterako: *Bilbatua Echebarria* (1817, BAH, A268/13) eta *Bilbatuaechevarria* (1857, BUA, Viv). 1825eko polizia-errodan, aldiz, *Bilbatua* (1825, PE/1825) agertzen zaigu, eta 1859ko izendegian *Bilbátuas* moduan agertzen da, izen bereko baserriak batuz. Auzotarren artean, *Bilbétu* izan da formarik erabiliena, *Bilbatuetxebarria* izena baztertuta gelditu delarik.

Bi isuritako teiltudun baserria da, inongo simetriarik ez duena, alde bata bestea baino han-

diagoa delako, noizbait ezker aldeko gorputza gehitu ziotelako. Fatxada nagusian deigarria da atarte zabal-zabala, egurrezko dintelduna, eta eskuma aldeko gorputza, bestea baino estuagoa. Behealde harrizkoa bada ere, lehenengo solairua eta ganbara alde luzitu eta pintatuta daude. Eta baei erreparatzen badiegu, leihoak dira nagusi, teiltupeko zurezko balkoia izan ezik. Aldi desberdinetan egindako baserri etxea da, zenbait arrastok hala adierazten dutelako. XVI. mendean tipikoak izan ziren silarri luzenak dauzka osteko eta aurreko fatxadan, eskuma aldean, leiho molduratu eta barruan izandako dolarearen elementu batzuk, sasoi hartan baserri askok zeuzkatenak, baina gutxi mantendu dituztenak. Beranduagokoa da gaur egun ikusten duguna, XVIII. mende ingurukoa, eta berriagoa oraindik kortarako atea.

toponimia

Alfontso Irigoien ikerlari ezagunaren ustez izen honetan dugun hitza Bizkaiko hiriburarekin lotu behar da. Badirudi Zallan ere errepikatzen den izen honetan aditza dugula baina esangura, “trama”, iluna da. Dena dela aitortu behar da -tua amaiera gehienak aditzak direla, artikularekin.